



Liburutegia

Haur Hezkuntza

IKAS-EGOERAK AHALBIDERATZEN DITUZTEN ESPAZIO, MATERIAL ETA ESKU- HARTZEEN DISEINUA

DATU OROKORRAK

Zikloa:

- Lehengo zikloa
- Bigarren zikloa

Haurren adina, garapen maila(k) eta ezaugarriak (*komunikazioa eta adierazpen erak, hizkuntza(k), ingurunea, aprendizaia estiloa(k)...*).

Talde nahiko anitza da garapen, heldutasun, ahalmen eta hizkuntza mailari dagokionez.

Gehiengoek, ahoz adierazitako testuak ulertzen dituzte (kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, asmakizunak etab.). Elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak garatzen ari dira. Ipuin motzak arretaz entzuteko gai dira. Irudien eta testuen arteko loturak egiten hasiak dira.

Ekosistemaren/Espazioaren antolaketaren intenzionalitatea eta justifikazioa.

Hezkuntza-asmoa: Zer lortu nahi dugu?

- Helduarekin harreman afektiboa hobetzen laguntzea.
- Komunikazio afektiboa bermatzea.
- Norbera bere buruarekin goxo egoteko tokia eskaintzea.
- Lasaitzen laguntzea, sosegua bilatzen laguntzea.
- Ongi pasatzea eta gozatzea.
- Komunikaziorako egoerak sorraraztea. Komunikazioa eta adierazpena ahalbideratzea. Hizkuntza konpetentzia garatzen laguntzea.
- Kalitatezko ipuinak eskaintzean haurren zaletasunei erantzutea.
- Haurrek bere fantasia, sentimendu zein nahietatik errealitatea ulertzea eta sentitzea.
- Haurren sormena elikatzea eta irudimenari bidea egitea.
- Prozesu metaforiko-sinbolikoaren bidez, haurren barruko gatazkei aurre egitea.
- Haurren barneko kontraesanak, beldurrak, antsietatea eta gatazkak sinbolizatu eta adieraztea eta prozesuan laguntzea.



- Aniztasuna ezagutzea, errespetatzea eta baloratzea.
- Idazketako sistemaren ezaugarri eta arau batzuei hurbiltzea.
- Liburutegia erabiltzen hastea eta hau informatzeko, ikasteko, entretenitzeko eta gozatzeko baliabidea dela balioestea.
- Ipuinak baloratu eta zaintzen hastea.

Justifikazioa:

Etaparen honetan literatura-testuekiko lotura emozional eta ludikoa ehuntzen hasten da. Berezi haur literaturan murgilduko da gozamen iturri gisa. Eguneroko testuinguruan ipuinak entzutean, kontatzean sortuko dira lotura emozionalak. Espazio goxo eta abegikor hau lasaitasun eta segurtasun afektiboko giroan erabiliko dugu.

Liburutegia, ekosistema gehienetan (artea, zientzia...) egon daitekeen gune bat bada ere (ekosistema bakoitzeko berariazko arloarekin lotutako testuekin hornituta egongo dena), apendizaiia-egoera hau diseinatzean, berariazko ez den espazio batean kokatuta dago.

Oinarri edota sustriaiak: segurtasun afektiboa, garapenerako autonomia, ohitura osasungarriak, ongizate fisiko eta psikikoa, zaintza, gorputzaren deskubrimendua/ezagutza/onarpena/kontrola eta bizipenak, harremanak (komunikazioa, adierazpena, hizkuntza(k) (entzumena-ahozkoa, irakurketa), matematika, sormena, iraunkortasuna, herritartasuna.

FUNTSEZKO KOMPETENTZIAK

- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia
- Kompetentzia eleaniztuna
- Matematikarako eta zientziako, teknologiko eta ingeniarietarako kompetentzia
- Kompetentzia digitala
- Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko kompetentzia
- Herritartasunerako kompetentzia
- Ekintzaitzarako kompetentzia
- Kompetentzia eta adierazpen kulturalerako kompetentzia

☒ 1. EREMUA: HARMONIAN HAZTEN	
Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak	
☐ 1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi doituera eraikitzeko.	
Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p>☐ 1.1. Ekintzak eta erreakzioak egoera bakoitzera egokitzea inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneo bidez, mugimendurako eta hautemateko dituen aukerak esploratuz eta zehaztasuna, koordinazioa eta intenzionalitatea hobetuz.</p> <p>☐ 1.2. Onarpena eta errespetua erakustea norbere gorputzarekiko eta besteenarekiko, horren ezagutza pixkanaka hobetuz.</p> <p>☐ 1.3. Segurtasuna, nahitasuna eta konpetentziarekin lotutako sentimenduak adieraztea ekintza bakoitzean.</p> <p>☐ 1.4. Denboraren oinarriko jakintzen inguruko ezagutzak erabiltzea, eguneroko bizitzako jardura eta errutinetan eta beste gertaera batzuetan bere burua denboran kokatzeko.</p>	<p>☐ 1.1. Gorputzaren ezagutzan aurrera egitea ekintzak eta erreakzioak egokituz eta oreka, zentzumenen pertzepzioa eta mugimenduan koordinazioa garatuz.</p> <p>☐ 1.2. Segurtasun pertsonala adieraztea jolasetan parte-hartzean eta eguneroko bizitzako egoera ugarietan, bakoitzaren aukeretan konfiantza izanez eta inizatibaz.</p> <p>☐ 1.3. Hainbat objektu, tresna eta erreminta anitzez baliatzea jolasetan eta eguneroko zereginetan, mugimen xehearen koordinazioaren kontrol progresiboa erakutsiz.</p> <p>☐ 1.4. Ekosistemetan (ikasteko espazioetan) eta jolas ez-estereotipatu zuzenduen eta espontaneo testuinguruetan parte hartzea bere aukera pertsonaletara egokituz.</p>
☒ 2. Progresiboki emozioak ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea beharrak eta sentimenduak adieraziz ongizate emozionala eta segurtasun afektiboa lortzeko.	
Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p>☐ 2.1. Emozioak eta sentimenduak adieraztea, pixkanaka kontzientzia emozionala eta erregulazio emozionalerako strategiak garatuz.</p> <p>☐ 2.2. Beste pertsona batzuekin harremanak izatea maitasuna onartuz eta adieraziz modu aske, seguru,</p>	<p>☒ 2.1. Beharrak eta sentimenduak identifikatu eta adieraztea pixkanaka emozioen kontrola egokituz.</p> <p>☒ 2.2. Eguneroko egoeretan laguntza eskaintzea eta eskatzea, kooperazioaren onurak eta</p>

<p>begirunetsuan eta estereotipo mota guztietatik urrun.</p> <p><input type="checkbox"/>2.3. Ezbehar txikiei aurre egitea, hobetzeko gogoia adierazten duten jarreraren bidez eta laguntza eskatuz eta eskainiz.</p>	<p>berdintasunezko harremanak balioetsiz.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>2.3. Ezinegonak, gogoko duena eta nahiago duena adieraztea, lorpenekin gogobetetz eta segurtasuna adieraziz.</p>
<p><input checked="" type="checkbox"/>3. Eredu, arau eta ohiturak bereganatzea, aukera propioetan konfiantza eta lorpen sentimenduak garatuz, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsua den bizimodu osasuntsua bultzatzeko.</p>	
<p>Lehen zikloa</p>	<p>Bigarren zikloa</p>
<p><input type="checkbox"/>3.1. Norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako estrategiak eta ohiturak eskuratzea.</p> <p><input type="checkbox"/>3.2. Jardueren denborazko segida, eritmo biologikoak eta eguneroko bizitza egituratzen duten jarraibide soziokulturalak ezagutu eta aurreratzea, elementuekin, prozedurekin eta jarrera zehatzekin lotuz.</p>	<p><input checked="" type="checkbox"/>3.1. Norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako jarduerak egitea errespetuzko jarrerarekin, konfiantza eta inizatiba adieraziz.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>3.2. Gertaerei eta eguneroko jarduerari lotutako denborazko segida errespetatzea taldeari ezarritako errutinetara ohituz eta gainontzeko pertsonetikiko errespetuzko portaerak garatuz.</p>
<p><input checked="" type="checkbox"/>4. Berdintasun baldintzak dituzten gizarte-interakzioak ezartzea, laguntasunaren, errespetuaren eta enpatia-errespetuaren garrantzia balioetsiz, balio demokratikoetan eta giza-eskubideen errespetuan oinarrituta bere nortasun propioa eraikitzeko.</p>	
<p>Lehen zikloa</p>	<p>Bigarren zikloa</p>
<p><input type="checkbox"/>4.1. Lotura eta harreman osasuntsuak ezartzea, gainontzeko pertsonetikiko nahitasunezko eta enpatiazko jarreraren bidez.</p> <p><input type="checkbox"/>4.2. Lehenago gertuko ingurunean behatutako jokaera eta egoerak errepikatzea, errespetuan, enpatian generoen arteko berdintasunean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutakoak, imitaziozko jolasaren bidez.</p> <p><input type="checkbox"/>4.3. Berdinekin gatazkak kudeatzen hastea pertsona helduaren bitartekaritzarekin, eta akordioak</p>	<p><input checked="" type="checkbox"/>4.1. Jolasetan eta talderako proposamenetan ekimenez parte hartzea, afektu- eta enpatia-jarrerak dituzten beste pertsona batzuekin harremanetan, eta diskriminazio mota guztiak saihestea.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>4.2. Jolas sinbolikoaren bidez jokabideak, ekintzak edo egoerak errepikatzea berdinekin elkarreaginean, mota guztietako estereotipoak identifikatuz eta baztertuz.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>4.3. Era aktiboan parte-hartzea bizikidetasuna erregulatzen duten eta dibertsitateari errespetua eta genero-</p>

<p>lortzeak dakartzan onuraz eta gogobetetzeaz jabetzen hastea</p>	<p>berdintasuna bezalako balioak bultzatzen dituzten arau sozialei buruzko hausnarketarekin lotutako jardueretan.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>4.4. Egoera gatazkatsuetan ekintzak kudeatzeko aukerak proposatzea beste pertsona batzuen irizpidea kontuan hartuz.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>4.5. Jarrera kritiko batetik eta errespetutik abiatuta bere ingurunean dauden ohitura eta tradizio etniko eta kulturekin lotutako jardueretan parte hartzea, horiek ezagutzeko interesa adieraziz.</p>
--	--

Oinarrizko jakintzak

Lehen zikloan	Bigarren zikloan
<p><input type="checkbox"/>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa.</p> <p><input type="checkbox"/>B. Oreka eta afektibitatearen garapena.</p> <p><input type="checkbox"/>C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarenerako mesedegarriak diren bizitza-ohiturak.</p> <p><input type="checkbox"/>D. Oreka eta afektibitatearen garapena.</p>	<p><input type="checkbox"/>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>B. Oreka eta afektibitatearen garapena.</p> <p><input type="checkbox"/>C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarenerako mesedegarriak diren bizitza-ohiturak.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>D. Elkarreragin sozio-emozionala ingurunean. Bizitza besteekin batera.</p>

2. EREMUA: INGURUNEA EZAGUTZEA ETA ESPLORATZEA

Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak

1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen-manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.

Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p><input type="checkbox"/>1.1. Objektuen arteko loturak egitea oinarrizko ezaugarriak kontuan hartuta jakinmina eta interesa adieraziz.</p> <p><input type="checkbox"/>1.2. Eguneroko esperientziarekin lotutako oinarrizko kuantifikatzaile esanguratsuak erabiltzea, eta jolasaren eta besteekiko</p>	<p><input type="checkbox"/>1.1. Objektuen artean hainbat lotura egitea ezaugarriak kontuan hartuz jakinmina eta interesa adieraziz.</p> <p><input type="checkbox"/>1.2. Oinarrizko zenbatzaile esanguratsuak erabiltzea jolasaren eta besteekin dituzten testuinguruan.</p>

<p>interakzioaren erabiltzea.</p> <p>testuinguruan</p> <p><input type="checkbox"/>1.3. Oinarrizko nozio espazialei buruzko ezagutzak aplikatzea espazioetan kokatzeko, bai geldi, mugimenduan, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p>	<p><input type="checkbox"/>1.3. Ohiko espazioetan era egokian kokatzea, geldi daudela, zein mugimenduan, espaziori buruzko oinarrizko ezagutzak erabilia eta norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p> <p><input type="checkbox"/>1.4. Eguneroko egoerak identifikatzea eta neurketak egiteko, gorputza edo beste material eta erreminta batzuk erabiltzea.</p> <p><input type="checkbox"/>1.5. Haien jarduera antolatzea, denborazko segiden ordena ezarri eta denborari buruzko oinarrizko jakintzak erabilia.</p>
<p><input type="checkbox"/>2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.</p>	
<p>Lehen zikloa</p>	<p>Bigarren zikloa</p>
<p><input type="checkbox"/>2.1. Zailtasunak, erronkak eta arazoak kudeatzea interesez eta inizatibaz, ekintza sinpleagoz osatutako sekuentzietan banatuz.</p> <p><input type="checkbox"/>2.2. Hainbat estrategien bidez konponbide alternatiboak proposatzea, entzunez eta gainontzekoak errespetatuz.</p>	<p><input type="checkbox"/>2.1. Egoerak, zailtasunak, erronkak edo arazoak kudeatzea jardueren sekuentziak planifikatuz, interesa eta inizatiba adieraziz eta maila berekoekin elkarlanean arituz.</p> <p><input type="checkbox"/>2.2. Pixkanaka zailtasunen edo arazoen ondoriozko frustrazioa bideratzeko estrategiak erabiltzea.</p> <p><input type="checkbox"/>2.3. Hainbat elementu edo materialen portaeraren inguruan hipotesiak planteatzea eta eskuztatuz eta haiengan ekinez egiaztatzea.</p> <p><input type="checkbox"/>2.4. Erabakiak hartzeko geroz eta autonomia handiagoz hainbat estrategia erabiltzea eta planteatzen diren erronketako arazoei sormena erabilia konponbideak aurkitzea.</p> <p><input type="checkbox"/>2.5. Zeregin analogiko edo digitaletarako ekintzen edo</p>

	<p>argibideen sekuentziak antolatzea, pentsamendu konputazionalerako oinarrizko kompetentziak garatuz.</p> <p><input type="checkbox"/>2.6. Proiektuetan parte-hartzea norberaren eta besteen iritzia partekatuz eta balioetsiz eta horietatik aurrera ondorio pertsonalak adieraziz.</p>
--	--

3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.

Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p><input type="checkbox"/>3.1. Interesa adieraztea naturarekin lotutako proposamenekiko eta tokiekiko, baita ingurunekeko elementu naturalekiko ere. Naturako elementuak errespetatzea eta horiekin gozatzea.</p> <p><input type="checkbox"/>3.2. Bere inguruan ohikoak diren fenomeno atmosferikoak identifikatzea eta izendatzea eta eguneroko bizitzan dituzten ondorioak azaltzea.</p>	<p><input type="checkbox"/>3.1. Natura-ingurunea errespetatzea eta zaintzeko jarrera izatea eta gizakien ekintza batzuek bertan dituzten ondorio positibo eta negatiboak identifikatzea.</p> <p><input type="checkbox"/>3.2. Izaki bizidunek eta bizigabeek dituzten ezaugarri komunak eta ezberdinak identifikatzea.</p> <p><input type="checkbox"/>3.3. Natura-ingurunearen eta gizarte-ingurunearen arteko loturak egitea naturako hainbat fenomenoren behaketatik aurrera.</p>

Oinarrizko jakintzak

Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p><input type="checkbox"/>A. Gorputzaren harremana ingurunearekin. Objektua, materialak eta espazioak sormenez esploratzea.</p> <p><input type="checkbox"/>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.</p> <p><input type="checkbox"/>C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.</p>	<p><input type="checkbox"/>A. Gorputzaren harremana ingurunearekin. Objektua, materialak eta espazioak sormenez esploratzea.</p> <p><input type="checkbox"/>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.</p> <p><input type="checkbox"/>C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.</p>

<input checked="" type="checkbox"/> 3. EREMUA: KOMUNIKAZIOA ETA ERRALITATEAREN ADIERAZPENA	
Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak	
<p><input checked="" type="checkbox"/> 1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta inguruneko eskakizunei erantzuteko.</p>	
Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p><input type="checkbox"/> 1.1. Beste pertsonekin lotura afektiboak sortzea eta indartzea, interesez interakzioetan eta eguneroko komunikazioa-testuinguruetan parte hartuta eta hainbat komunikazioa-sistema erabilia.</p> <p><input type="checkbox"/> 1.2. Komunikazio-egoeretan espontaneo-tasunez parte-hartzea, postura, keinuak eta mugimenduak hizketakideetara moldatuz.</p> <p><input type="checkbox"/> 1.3. Beharrak, sentimenduak eta bizipenak adieraztea komunikazio-estrategiak erabilia eta lengoia eta hizkuntza desberdinek eskaintzen dituzten aukerak aprobeztatuta, guzti hori jakinminez eta gozatuz.</p> <p><input type="checkbox"/> 1.4. Gizarte-interakzioetan inizatiba izatea, komunikazio egoerez gozatuz errespetuzko jarrerarekin.</p> <p><input type="checkbox"/> 1.5. Lengoia eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea hizkuntza-profil aniztasunarekiko interesa eta jakinmina adieraziz.</p>	<p><input checked="" type="checkbox"/> 1.1. Era aktiboan, espontaneoan eta errespetuzkoan bakoitzaren ezberdintasunekin geroz eta zailagoak izango diren hainbat komunikazio-egoeretan parte hartzea. Horretarako lengoia eta hizkuntza ezberdinen adierazteko aukerak ikertzea eta komunikazio-errepertorioa proposamenera, hizketakideetara eta testuingurura egokitzea.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 1.2. Lengoia eta Hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea, interesa, jakinmina eta hizkuntza-profil aniztasunarekiko errespetua erakutsiz.</p> <p><input type="checkbox"/> 1.3. Hainbat bitarteko eta tresna digitalen erabilerara gerturatuz, modu birtualean jardutea.</p>
<p><input checked="" type="checkbox"/> 2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeke.</p>	
Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p><input type="checkbox"/> 2.1. Inguruneko estimulu eta</p>	<p><input type="checkbox"/> 2.1. Arte-adierazpenen bidez edo</p>

<p>mezuak interpretatzea eta era egokian erantzutea.</p> <p><input type="checkbox"/> 2.2. Sentsazioak, sentimenduak eta emozioak adieraztea hainbat arte-eta kultura-adierazpenen aurrean.</p>	<p>formatu digitalean igorritako mezuak interpretatzea igorlearen asmoa zein den identifikatuz eta jakinminetako eta ardurazko jarrerarekin.</p>
<p><input checked="" type="checkbox"/> 3. Hainbat lengoia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutuz eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorren, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.</p>	
<p>Lehen zikloa</p>	<p>Bigarren zikloa</p>
<p><input type="checkbox"/> 3.1. Ahozko hizkuntza beharrak, sentimenduak, desioak, emozioak, bizipenak adierazteko erabiltzea; ekintzak erregulatzeko eta hainbat egoera eta testuingurutan interakzioak izateko.</p> <p><input type="checkbox"/> 3.2. Hainbat lengoia hizkuntzaren adierazpenerako aukerak esploratzea, hizkuntza horietako berezko baliabideak eta materialak erabiliz.</p> <p><input type="checkbox"/> 3.3. Mezuak sortzea komunikazio-errepertorioa segurtasunez eta konfiantzaz zabalduz eta aberastuz.</p>	<p><input checked="" type="checkbox"/> 3.1. Ahozko-hizkuntza era praktikoan erabiltzea hizkuntza-errepertorioa zabalduz eta pixkanaka solas eraginkor bat eraikitzeke, antolatutako eta testuinguru formal eta informaletan koherentzia duena.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 3.2. Ahozko hizkuntza erregulaziorako tresna gisa segurtasunez eta konfiantzaz erabiltzea beste pertsonekin izaten dituzten interakzioetan.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 3.3. Ahozko kontaktaren bidez ideiak espontaneotasunez ekartzea gogora eta adieraztea.</p> <p><input type="checkbox"/> 3.4. Sorkuntza plastikoak egitea hainbat material eta teknika erabiliz eta behar denean talde-lanean era aktiboan parte-hartzea.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 3.5. Dramatizazio- eta musika-proposamenak interpretatzea hainbat tresna, baliabide eta teknika erabiliz eta esploratuz.</p> <p><input type="checkbox"/> 3.6. Norberaren mugimendua era harmoniatsuan besteenera eta gorputz-adierazpen libre gisa, espaziora egokitzea interesa eta inizatiba adieraziz.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 3.7. Intuiziozkoak eta ikusmenezkoak diren hainbat erreminta edo aplikazio-digital erabiltzea sormenez beren</p>

	burua adierazteko.
<input checked="" type="checkbox"/> 4. Idatzizko testuekin lotutako jardueretan parte hartzea norberaren inizatibarekin, funtzionalitatea eta ezaugarrietako batzuk ulertzeko interesa eta jakinmina adieraziz.	
Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<input type="checkbox"/> 4.1. idatzizko-hizkuntzarako hurbilketa-jarduera ludikoetan era aktiboan parte hartzea. <input type="checkbox"/> 4.2. Idazketa zehaztugabe, espontaneo eta ez-konbentzionaletara jotzea, eta komunikazio-asmoko bere produkzioei gehitzea.	<input checked="" type="checkbox"/> 4.1. Kode-idatzien bidez komunikatzeko interesa adieraztea, konbentzionalak izan ala ez, sormenezko funtzioa baloratuz. <input checked="" type="checkbox"/> 4.2. Testuaren eta paratestuaren ezaugarri batzuk identifikatzea gizarte-erabilera duten eta aurreiritzi eta estereotipo sexistarik ez duten erabilera sozialeko liburuetan lagundutako ikerketaren bidez. <input checked="" type="checkbox"/> 4.3. Liburutegira jotzea gozamina lortzeko erabilerarako arauak errespetatuz.
<input checked="" type="checkbox"/> 5. Komunikazio-estrategiak eta kultura-ezagutza aberasteko, haurren ingurunean dagoen aniztasun linguistikoa eta beste kultura-adierazpenak baloratzea.	
Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<input type="checkbox"/> 5.1. Taldearen hizkuntza- eta kultura-errealitatean naturaltasunez harremanak izatea. <input type="checkbox"/> 5.2. Haur-literaturarekin, musika-lanekin, ikus-entzunezko lanekin, dantzekin edo dramatizazioekin lotutako banakako eta taldeko jardueretikiko interesa eta gozamina adieraztea, jarrera partehartzailearekin aurrera eginez.	<input checked="" type="checkbox"/> 5.1. Bere inguruneko hizkuntza- eta kultura-aniztasunean normaltasunez harremanak izatea, beste hizkuntza, etnia eta kultura batzuekiko interesa adieraziz. <input checked="" type="checkbox"/> 5.2. Errutinekin eta eguneroko egoerekin lotutako komunikazio-interakzioetan atzerriko hizkuntzarekin parte hartzea. <input checked="" type="checkbox"/> 5.3. Haur-literaturara hurbiltzeko jardueretan parte hartzea, bai banakakoetan, bai elkarrizketa testuinguruetan eta testuinguru partehartzaileenetan, literatura-hizkuntzaren edertasuna aurkitu, aztertu eta aintzat hartuz..

	<p><input checked="" type="checkbox"/>5.4. Emozioak, ideiak eta pentsamenduak arte- eta kultura-adierazpenen bidez adieraztea, hezkuntza prozesuaz gozatuz.</p> <p><input type="checkbox"/>5.5. Arte-adierazpenen aurrean gustuak, lehentasunak eta iritziak adieraztea, horien gozamenak sorrarazten dizkien emozioak azalduz.</p>
Oinarrizko jakintzak	
Lehen zikloa	Bigarren zikloa
<p><input type="checkbox"/>A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak.</p> <p><input type="checkbox"/>B. Hizkuntzak eta beren hiztunak.</p> <p><input type="checkbox"/>C. Ahozko hitzeko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa.</p> <p><input type="checkbox"/>D. Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea.</p> <p><input type="checkbox"/>E. Hizkuntza eta musika-lengoaia.</p> <p><input type="checkbox"/>F. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala.</p> <p><input type="checkbox"/>G. Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.</p>	<p><input checked="" type="checkbox"/>A. Komunikazio-asmoa eta komunikazio-interakzioa.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>B. Hizkuntzak eta beren hiztunak.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>C. Ahozko hitzeko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>D. Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>E. Literatura ikasketara hurbiltzea.</p> <p><input type="checkbox"/>F. Hizkuntza eta musika-lengoaia.</p> <p><input type="checkbox"/>G. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/>H. Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.</p> <p><input type="checkbox"/>I. Teknologia digitalak.</p>
EKOSISTEMA/ESPAZIOAREN IZAERA	
<p>1) <input type="checkbox"/> Amankomuna (sarrera, kanpo espazioa, pasilloa...)</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Berariazkoa</p> <p>(zientzia, matematika, artea, hizkuntza(k), eraikuntzak, sinbolikoa...)</p> <p>2) IDU. Printzipioak</p> <p>I. <u>printzipioa</u>: Irudikatzeko modu ugari ematea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 1. Jarraibidea: Pertzepziorako hainbat aukera ematea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 2. Jarraibidea: Hizkuntzarako, adierazpen matematikorako eta sinboloetarako aukera ugari ematea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 3. Jarraibidea: Ulermenerako aukerak ematea</p> <p>II. <u>printzipioa</u>: Ekintza eta adierazpen modu ugari ematea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> 4. Jarraibidea: Interakzio fisikorako aukerak ematea</p>	



5. Jarraibidea: Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea

6. Jarraibidea: Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea

III. printzipioa: Inplikatzeko modu ugari ematea

7. Jarraibidea: Interesa eta erakartzeko aukerak ematea

8. Jarraibidea: Ahaleginari eta iraunkortasunari eusteko aukerak ematea

9. Jarraibidea: Autoerregulaziorako aukerak ematea

3) Ekosistema/espazioaren identitatea eta ezaugarri orokorrak

Diseinatu dugun edo diseinatu nahi dugun espazioaren identitatea zein den (kanpo/barne espazioa, lengoaia(k), zaintza, ongizatea, segurtasun afektiboa...), mikroespazioak...

- Ekosistema barnean dagoen mikroespazioa da.

4) Espazioen diseinua eta antolaketa (geruzak)

- *Lehen geruza: hormak, zoruak eta sabaiak.*
 - Egurrezko taramazko lurra dauka, hormak zuriz daude margotuak eta ez dute gehiegizko kartel edo zintzilikariorik.
 - Leihoaren ondoan dagoen mikroespazio honek, argi natural zuzena jasotzen du. Leku goxoa (lasaitasuna ematen duena, sosegua).
- *Bigarren geruza: altzariak eta hauen antolaketa*
 - Kojinak, alfonbrak, esertzeko leku erosoak, tapatzeko mantak, argi leuna ematen duen lanpara, trapuzko panpin, pelutxeak eta landare pare bat dituen espazioa da.
- *Hirugarren geruza: materialak eta baliabideak*
 - Haurren eskura saskitxoak eta apalak daude. Saski hauetan, ipuin, aldizkari, gidak, egunkari eta braille irakurketa errazten duen ipuinak, olerki liburua, komikiak etab daude. Apaletan, aldatzen goazen ipuin, olerki, aldizkari... berriak jartzen ditugu. Albumak be egongo dira, adostutako berriazko hiztegiarekin (ekosistemara lotutakoa, alegia).
 - Haurren eskura daude liburu guztiak beti. Tabuak hausten dituzten ipuinak, irudimena garatzen laguntzen dutenak, hezkidetzako liburuak, autonomia garatzen laguntzen dutenak eta ipuin klasikoak.



- Beraien ipuinak egiteko materiala ere badute. Paper desberdinak, arkatza, ezabagoma, margoak, zulagailua, grapagailua, kola, aldizkariak etab.
- Letra eredu ezberdinak eskaintzen dira (egurrezkoak, magnetikoak, lixazkoak...)
- Letren trazuak egiteko euskarri/baliabide ezberdinak eskaintzen dira:
 - Erretilu gardenak (argi-mahaiari erabiltzeko) edo opakua harea, semola edo gatzarekin esperimentatzeko,
 - Buztina eta makiltxoak
 - Margoz betetako poltsa hermetikoak eta kotoi-zotzak
 - Harri gardenak trazuak jarraitzeko
- *Laugarren geruza: pertsonak*
- Haurren garapen harmoniko eta integrala gertatzeko, helduek objektuekin eta pertsonekin harremanak ahalbidertzeko espazio zitur, babesle eta erosoak diseinatu behar dituzte. Espazio horietan helduon presentzia ziurtatu behar da laguntza eta akonpainamendu egokia gertatzeko. Arreta berezia haurrekin gertatzen diren elkarrizketetan jarriko dute, horretarako hitz egiteko era eta jarrerarako protokoloa definituta egotea ezinbestekoa da. Lasaitasuna bermatzea ekosistema guztietan gakoa izango da baina honetan protagonismo berezia hartuko du, haur literaturaren onurak bermatzeko.

HEZITZAILEEN ESKU-HARTZE ESTILO BATERATUA

Protokoloak, galdera-gidak, galdera-erronkak, arauak...

- Egunero, hezitzaileak ipuin bat irakurriko die bertan daudenei, aukera guztiei zabalduko die, kanpai hotsa eta kandela bat piztea izango da egoera honen hasiera errituala. Bukaeran irakurketaren inguruko solasaldia egingo da, irakurmenaren ulermenean oinarritutako puntuekin.
- Hezitzaileak kontrol zerrenda bat izango du, haur guztiek input-a jaso dezaten.
- Ispilu lanak egingo ditu hezitzaileak, ipuin eta liburuenganako haurren interesa nabarmenduz.
- Ekosistemaren hiztegi propioaren erabilera funtzionala.
- ...

EBOLUZIOA ETA EBALUAZIOA

1. Haurren eboluzioa

Atal honetan, haurren eboluzioaren erakusleak jasoko ditugu. Erakusle hauek, espazio-ekosistema horretan eskaintzen ditugun material eta proposamenekin lotura zuzena izango dute, egunerokoan antzeman daitezkeenak. Adibidez:

- 1. EREMUA
 - A. Emozioak adierazi eta kontrolatzen ditu, ekosisteman sortzen diren egoera gatazkatsuetan.
 - B. ...

- 3. EREMUA
 - A. Haurren arteko elkarrizketetan txandak errespetatzen ditu eta lagunek esaten dutena aditzen du.
 - B. Dituen beharrak era egokian komunikatzen ditu, ahozko hizkuntza erabiliz.
 - C. Ipuinaren proposamena gustura onartu eta aktiboki parte hartzen du.
 - D. ...

2. Hezitzaile/maisu-maistren ebaluazioa

Hezitzaile taldeak atal honetan, haurri eskainitakoaren ebaluazioa egiteko antolamendua ezarriko dute. Denbora tarte batean (astero, hilabetero...), haurrentzako proposamenak (espazio, material eta esku-hartzeak), aurrez ezarritako helburu edo intenzionalitatearen arabera baloratuko dira (guk eskainitakoa lantzea pentsatua geneukana garatzeko erabilgarria izan zaio haurri?).

3. Ebaluaziorako teknikak, erremintak eta tresnak

Honetarako erabiliko den antolamendua (mailaka, zikloka, etapaka, bertikalki, horizontalki...), koordinazioa eta bilerak zehaztu.

- Teknika: Behaketa sistematikoa
Erabiliko ditugun erremintak:
 - Egunerokoa
 - Kontrol-zerrendak
 - Gertakari larriak
 - ...
- Tresnak: Haurren ebidentziak (elkarrizketak, ekoizpenak...)